

ESKAINZA:

Juan Mari Lekuona(†),

Literatura Ikerketa batzordeburu ohiari

Literatura Terminoen Hiztegi honen eskaintza Juan Mari Lekuona irakasleari egitea ohorea da batzordekide guztiontzat eta bereziki enetzat, Literatura Ikerketa Batzordeburu zereginak ene gain hartu ditudan honentzat.

Literatura Ikerketa Batzordeko burua izan zen Juan Mari Lekuona 1992an batzordea sortu zenetik 2005 arte. Batzordearen sorrera eta eitea bera ere hari zor zaizkio: Lazkaon eginiko batzarrean (VI. Barne Jardunaldiak, 1989ko otsailaren 24 eta 25ean) Iker sailean sartu zen proposamena eta aurrerago Juan Mari Lekuona k aurkezturiko txosten batek, hain zuzen 1989ko apirilaren 27koak, garatu zuen zeri buruz zihoan Literatura Batzordearen helburua.

II. Euskal Mundu Biltzarraren ondotik ikus zitekeen zer ziren beharrak eta ildo hartarik joanez, zioen Juan Marik, Mundu Biltzarreko lankideak bezalatsukoak beharko zituen Euskaltzaindiko batzordeak, departamendu eta unibertsitatekoak, gogoeta teoriko eta metodologiko serio eta jarraituari atxikiak eta plangintza autonomo eta koordinatu baten barruan ariko zirenak. Literatura ikerketaz mintzo zelarik, ikusten zuen desoreka bat nabari zela hizkuntzalaritza eta literaturaren artean, goragoko ikerketa mailan ikusten zela lehena, bai Euskaltzaindian eta bai Unibertsitatean. Halere gauzak aldatzen ari zirela azpimarratzen zuen Unibertsitateetan, idazleen artean, Idazleen Elkartea sortua zen eta ikerketa liburu gehiago kaleratzen zen.

Jadanik argi zegoen haren pentsamoldean ikerketak bideratuko lituzkeen eta unibertsitateko literatura departamenduen bidez loturak izango zituzkeen taldea izan behar zuela Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa azpibatzaordeak. Behin betiko lantalde baten beharra agertu zuen, hasieraren emateko behintzat, bilduz orduko unibertsitateko irakasleak. Bordele eta Pabetik, J. Haritschelhar, Tx. Peillen, J.B. Orpustan, A. Arkotxa; Gasteiztik, J. Kortazar; Bilbotik, B. Uraga, J. Otaegi, Donostiatik J.M. Lasagabaster, P. Urkizu, A. Toledo, A. Lertxundi, J. M. Lekuona bera... eta izen zerrenda zehaztu eta osatu beharra zegoela zioelarik.

Juan Mari Lekuonaren eta haren ondoan zirenek argi zeukaten beharrezkoa zela biltzea hala Iparraldeko nola Hegoaldeko unibertsitateko literatura irakasleak eman den zerrendak agertzen duen bezala. Azken egiturari, Literatura batzordeak, Euskaltzaindiko Iker saileko bost batzorde nagusietan, bi azpibatzerde ukan ditu: Herri literatura azpibatzerdea eta Literatura ikerketarena.

Modu horretan sorturiko Literatura Ikerketa Batzordeak bi xede hartu ditu azken hamabost urte horietan:

Ikusirik beharrezkoa zela finkatzea literatura terminoen hiztegia, euskara batura-ko hitzak hobeki definituz zerbitzu paregabekoa eskainiko ziela bai bigarren maila-ko irakasleei eta unibertsitateko ikasleei, sartu da lan horretan kontutan hartuz hitz bakoitzari behar zitzaiola definizioa eman euskaraz eta bilatu etsenpluak edo adibideak euskal literaturan. Ikerketa lan sakona batzordeak eraman duena azken hamabost urte horietan, hitz bakoitzaren erran nahia eztabaidatuz eta elkarrekin adostuz, azkenik emanez hizkuntza orrazketa batasunaren lortzeko. Esku artean duzun hauxe da urte luzeetako lan horren emaitza.

Bestalde, euskal idazle zenduei buruz apailatzen ditu omenaldiak, izan daitez-zen jardunaldiak ala kongresuak, bilduz bere baitan dituen ikerleak edo kanpotik jin araziz irakasle jakintsuak. Oroitgarriak dira Oihenarti eskainitako Biltzar nagusia Maulen eta Donapaleun, Iker sortako liburukiak biltzen dituela emanak izan diren mintzaldiak. Halaber aipa daiteke Eusko Ikaskuntzarekin Hendaian antolaturik Anton Abbadiari eskaini zitzaion Biltzar nagusia eta Baionan Lafitteren omenez egi- niko Biltzarra, hor ere direla lekuko ondotik kaleratu diren liburu mardulak. Jardunaldietan aztertuak izanak dira hainbat eta hainbat idazleren obrak, izan dai- tezen Iparraldekoak (Elizanburu, Oxobi,...) edo Hegoaldekoak (Kardaberaz, Arana, Ubillos, Lizardi, Lauaxeta,...). Euskera aldizkarian agertu dira emaitza horiek, era- kusten dutela Herri literaturarekin batera azken mende laurdenean emanak izan diren aurrerapen baliosak.

Horretaz gain, Literatura Ikerketa Batzordeak Euskaltzaindiak berak eta beste zenbait erakundek ematen dituen Literatura sarien epaimahaiak osatzen ditu. Erran bezala, xede horietan lehena eta luzeena izan denaren emaitza da Literatura Terminoen Hiztegi hau. Hiztegiaren argibideak ematen dituen ondoko atalean ikus dezake irakurleak zein ezaugarri dituen, baina ene aldetik ez nuke aipatu gabe utzi nahi Juan Mari Lekuonaren zuzendaritzapean Literatura Ikerketa Batzordeak buru- tu duen lanean ez dela terminologia tinkaturik uzteko jarrera agindu zalerik izan; aitzitik, hiztegi honek euskal literatura terminoen erabilera deskribatu du, eta –batzordeburuari zegokion ikertzaile espirituaren zabalasunaren adierazle– jomu- gatza izan du euskal literaturaren ikasketa komunitateari proposamen ahal bezain koherentea aurkeztea, etorkizuneko ikaskuntzen ibilbiderako lagungarri.

Horrenbestez, Literatura Ikerketa Batzordearen liburu honen aurkezpena egitean, Juan Mari Lekuona hartzen dugu gogoan, eta bihotzez eskaintzen diogu batzordeko denon ahaleginaren fruitu den Literatura Terminoen Hiztegi hau.

JEAN HARITSCHELHAR,
Literatura Ikerketa batzordeburua